@DKKYNKK
ETORKIZUNA
LAPURTU NAHI DIGUTE
– GUZTIONTZAKO PENTSIO NAHIKOAK BERMATUKO DITUEN SISTEMA PUBLIKO BATEN ALDE
– LANAREN ETA ABERASTASUNAREN BANAKETAREN ALDE
– 35 ORDUTAKO IHARDUNALDIAREN ALDE
LKN
CGT

PENTSIOEI BURUZ

Pentsioen inguruan "kontatzen diguten ipuinean" eskubideen hizkerarik ez duen hizkuntza ekonomizista nagusi da.

Haren kontzeptuek biztanleriaren artean izua pizteaz gain, honi "kontribuitzen duenak jasoko duela" eta "emandakoarekin proportzionalki jasoko duela" sinistarazi nahi diote; gezurra izateaz gain gure pentsio sistema publikoaren aurkakoa dena; honen oinarrizko printzipioa erraza da:"beti hirugarren adineko pertsonek pentsio nahikoak eta egokiak izateko baliabideak (dirua) izan behar da" (50.art. EK).

Urte asko daramatzate behar izan egoeren aurrean pertsona guztiak babesten dituen (langabetuak, errentarik gabeak, pentsionistak, erabat) Pentsioen eta Gizarte Segurtasunaren Sistema Publikoa deusezteko saiakeran.

KONTATZEN DIZKIGUTEN IPUINAK

EKren 41.artikuloak botere publikoak gizarte prestazio nahikoak —ez minimoak— bermatuko dituen Gizarte Segurantza Sistema bat mantentzera behartzen ditu pertsona guztiek bizitza duin bat izateko duten Oinarrizko Eskubidea bermatzeko modu bakarra delako.



BA AL ZENEKIEN...

ONDOKOA ESATEN DUTENEAN GEZURRETAN ARI ZAIZKIZULA:

"Pentsioen sistema publikoaren jasangarritasuna bermatzeko legeak egiten dituztela"

Taula honi erreparatu eta pentsio kontributibotara heltzeko gero eta zailtasun gehiago ezarriz eta gero eta beranduago erretiroa hartzera behartuz gure pentsioen balioa nola "lapurtzen" joan zaizkigun ikusiko duzu:

ERREFORMAK	1985	1987	2006
SINATZAILEAK	PSOE+ENPRESARIAK CCOOK GREBA OROKORRA ANTOLATU ZUEN.	PP, PSOE ETA BESTE+ENPRESARIAK, CCOO ETA UGT	PP, PSOE, PNV, CIU ETA BESTE +ENPRESARIAK, CCOO ETA UGT
JUBILATZEKO ADINA	65 URTE	65 URTE	65 URTE
KALKULURAKO ADINA	2 URTETATIK 8RA IGARO ZEN	8 URTETIK 15ERA	15 URTE ERREALAK
PENTSIOAREN %100A JASOTZEKO KOTIZATU BEHARREKO URTEAK	ANOS COTIZADOS PARA 100% PENSIÓN	ANOS COTIZADOS PARA 100% PENSIÓN	ANOS COTIZADOS PARA 100% PENSIÓN

ERREFORMAK	2011 - 2013		
SINATZAILEAK	PP, PSOE, PNV, CIU ETA BESTE +ENPRESARIAK, CCOO ETA UGT		
JUBILATZEKO ADINA	65 URTE	66 URTE	67 URTE
KALKULURAKO ADINA	25 URTE ETA 5 URTERO GAINBEGIRATUKO DA		
PENTSIOAREN %100A JASOTZEKO KOTIZATU BEHARREKO URTEAK	38,5 URTE	38,5 URTE	37 URTE

Zapatero-ren 2011/27 Legeak, alderdi politiko guztien (EB izan ezik) eta CCOO eta UGT sindikatuen artean adostutakoa, Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren jasangarritasun faktorearen eta berbalorazio indizearen erregulatzailea den 1013/23 Legeak, pentsioen balioaren %20aren inguruko beherapena suposatu du; eta 2013ko erreformak aldiz, jubilazio osteko batazbesteko pentsioen murrizketarekin, %15eko galera gehigarri bat gehituko dio.

"Bi murrizketak batuta, pentsioeK %45eko beherapena jasango dute

Hau onartezina da; eragotzi ezean, egungo pentsio baxuak bihar miseriazkoak izango direlako. Hobe ulertzeko, egungo 934 eurotako batazbesteko pentsioa 514ekoa izango litzateke; autonomoen 647 eurotakoa 356era jeitsiko litzateke eta alargunena 359 eurotara".

BA AL ZENEKIEN...

Pentsioen Sistema Publikoak porrot egin dezakeela GEZURRA dela?

Haiek asmatutako kontabilitate defizitak (gastuak baino diru sarrera gutxiago izatea) pentsioak mehatxatzen dituela GEZURRA dela?

Jakinzazu Estatuek ez dutela porrotik egiten eta gure Pentsioen eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoa ere ez. Botere legegilea dena dela (uneko gobernuak), botere publikoak behartzen dituzten konstituzioaren 41 eta 50. artikuluen aginbideak direla eta Estatua urtero Pentsioen eta Gizarte Segurantzaren Sistema publikoak estatu espainiarrean bizi den biztanleria guztiari asistentzia sanitarioa eta pentsio nahikoak eta egokiak beti bermatu ahal izateko baliabideak eskaintzera behartuta dago.



Gizarte Segurantzaren defizit edo superavitaren gaia, finantzaketa kontributiboen atalari bakarrik erreferentzia egiten dio, hau da, lanean eta kotizazio oinarri (soldata) baten arabera kotizatzen duten pertsonen kopuruari eta gastuaren gorabeherei Gizarte segurantzak ordaindutako pentsioen eta prestazioen arabera.

Haiek, boteretsuek, 2011tik EKren 135. artikuluaren erreformarekin, defizitaren trikimailua asmatu zuten eta 2012an Aurrekontuen Egonkortasunerako eta Oreka Finantzarioetako Lege bat sortu zuten, zeinak administrazio publiko guztiei gastuen araua betetzera eta jatorrian Bruselasen sortu eta gerora Espainiar Estatuak zehazten duen defizit maila batzuk betetzera behartzen ditu.

Hemen dago “Gizarte Segurantzaren defizit famatuaren“ azalpena; 2011tik miloika kaleraketa, soldaten jeitsiera, enpresarientzako diru laguntzak eta kotizazioen murrizketa, astero ordaintzen ez diren eta kotizatzen ez duten ordu extrak, kotizazio maximoak mantentzea eta antzeko beste hainbat mekanismoren bidez talde kontributiboaren sarreren eta gastuen arteko aldea etengabe defizitarioa izatea eragiten da.

50 urte igaro ahal dira eta urtero berbalorazio indizearen bidez lapurtzen jarraitzeko “aitzakia“ izango dute.

ESTATUAREN BOTEREA

KRIMENAREN BITARTEZ SOILIK MANTENDU DAITEKE

MIJAIL BAKUNIN

PENTSIO PUBLIKO DUIN BATZUEN ALDE

INFORMAZIO GEHIAGO HEMEN:

CGT.ORG.ES @CGT ROJOYNEGRO.INFO